

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

## Bolo hysterikoa

**H**spaldian analisirik egin gabe, denbora falta aitzakiatzen zion bai bikotekideari bai bere buruari. Lan askorekin zebilen, ardura familiarrak egunetik egunera handiagoak ziren, eta obsesioraino begiratzen zien hainbat eraikinetako erlaitzetan, kasik oharkabean ipintzen dituzten orratzei; iltze gisako hauek usoak pausa ez daitezten ipintzen dituzte, zirinik egin ez, eta eraikin kanpoaldeak kakaztu ez ditzaten. Bera usoen gisara sentitzen zen, iruditzen zitzaion errealtateak halakoxe orratzak ezarriak zizkiola, eta ez zeukala non pausatu, non egokitu, non laketu. Sarri etortzen zitzaion gogora bost egunez desagerturik egon, eta seigarrenean non eta etxeko ganbaran kukutua topatu zuten lankide desorientatua, edota aste batetik bestera hil zitzaion lagun osasuntsua. Harik eta, akaberan, sendagilearenera deitu zuen arte.

Bihotz pilpirak azkartxo zebiltz-kion eta tentsioa altu samarra zuen, baina sendagileak hitzorduko urduritasunari egotzi zion. Alabaina, onartu behar izan zuen azken hilabeteetan ez zela gehiegi zaindu, lo gutxi egiten zuela, eta gauez gaixotasun larrien hurbiltasunak erotzeraino erasaten ziola; aitortu behar izan zuen gehitxo erre eta edaten zuela, eta gutxiago jaten zuela nekeza zitzaiolako ahamena irenstea. Sendagileak, orduan: “Adinarekin tiroak gero eta hurbilago entzuten dira, ezta? Badakizu *angustia* hitza nondik datorren? Latineko *angustus* hitzetik hain segur, eta toki estu eta hertsia adierazten du. Ba horixe da zure bizitza laburbiltzen duen hitza. Estres apur bat beharrezkoa da, baina neurrian. Nago bolo hysterikoa duzula, horixe dela jatekoak irensten uzten ez dizuna. Bizimodu mantsoagoa komeni zaizu, eta on egingo dizu, hasteko, Tranxilium pilulak egunean hiru bider hartzeak”.



DANI BLANCO




Bolo hysterikoa ahantzirik bazkaldu zuen, eta Orhirako bidean gora aurrena eta Larrainerako bidean behera hurrena, presarik gabe egin zuen aurrera. Eta noizbait ere osinera heldu zelarik, astiro biluztu, eta gozoro sartu zen uretan



Anbulatoriotik irtetearekin batera, tiroak urrunago sumaturik, telefonoa itzali zuen. Gero, botikara joan beharrean, kafe batera jo zuen. *Berrian*, Nafarroa Behereko Behorlegi herrixkan Maddi Oihenarten eta Jeremy Garat biolontxelo jotzailearen kantaldia iragartzen zen. Tokitan zegoen, baina ez bat eta ez bi, joan egin zen. Gidaritza –Oihenart beraren azken diskoa lagun– lasaigarria egin zitzaion, eta paisaia bihotz altxagarria, eta Irunberriko Arroilara iritsirik, harrika jaurti zuen telefonoa. Otsagabian, bazkaldu aurretik ciber kafe batean sartu zen hemerotekan kuku bat egiteko, eta horra aurreko batean irakurritako erreportaia: Zuberoako Gamere herrixkan, Lamina Zilo izeneko osinean, ura 34 gradutan irteten da lurpetik. Kasik sms bat zirudien email bat idatzi zuen: “Ongi nago. Berandutuko”. Bolo hysterikoa ahantzirik bazkaldu zuen, eta Orhirako bidean gora aurrena eta Larrainerako bidean behera hurrena, presarik gabe egin zuen aurrera. Eta noizbait ere osinera heldu zelarik, astiro biluztu, eta gozoro sartu zen uretan.

Iluntzean, Behorlegi herri miniaturazkora iritsirik, Santa Grazi kaperara jo zuen. Gualdia hasi aurretik, azaldu zuten kaperara hartara haur ttikiak eramateko usadioa dagoela, ibiltzen eta mintzatzten ikas dezaten. Eta berak irudipena izan zuen, ezbeharren bat izan dutenen gisara, berriro ere ibiltzen eta mintzatzten ikasi beharra zeukala. Kantaldia kandela soil baten argitan garatu zen, mikrorik gabe, *a capella* alegia, eta txorien firurikak eta hegaldiak izan zituen ardatz, eta berak, hunkiturik, irudipena izan zuen aspaldian lurretik arrasegi ibili zela eta berriro ere hegaldatzen ikasi beharra zeukala. Akaberan, autoan sartu, eta abiatu ondotik, zin egingo luke ibilgailua hegan zihoakiola. ■



irudia:  
Antton Olariaga